

IRABAZI ITURRIAK

Gure plataforma hasiera batean dohainezkoa izango da, baina modu batean edo bestean etekinak atera beharko ditugu proiektua bultzatzeko. Hau, publizitatea, premium zerbitzua, eta ideiak erregistratzeko egiten dugun zerbitzutik lortuko dugu.

Lehenik eta behin, hasierako irabaziei helduko diegu. BBVA-tik mailegu bat hartuko dugu, 10.000€-koa. Horrez gain, taldekide bakoitzak 2500€ inguru jarriko ditu, bere diru propioetik edo familiako kideek sartu dezaketenen dirutik, adibidez. Badakigu irabazi hauek ez dituztela urte bateko kostuak ordaintzen, baina kostuen egitura atalean esan dugun bezala, gure soldatak irabazien arabera moldatu ditzakegu. Beraz, soldatak kontuan hartu gabe proiektua hasteko behar adina diru lortuko dugu inbertsio hauen bidez.

Orain, jarduneko diru sarrerei buruz hitz egingo dugu. Publizitateari helduz, hasiera batean ez dago irabazi finkoren bat. Hau da, lortzen ditugun irabaziak bi aldagai nagusien arabera aldatuko dira. Bat, zeini egiten diogun publizitatea da, ez delako berdina enpresa ezagun edo ez hain ezagun batentzat iragarki bat egitea. Bigarren eragilea iraupena da, geroz eta luzeago, geroz eta diru gehiago kobratuko dugu.

Iragarki hauek kentzeko modu bakarra dago: premium zerbitzuarekin; 9,99€-ko hilabeteko ordainketen bidez anuntzioak kendu ditzakezu, Gure ustez zerbitzu on bat da, eta erabiltzaie gehienek hartuko balute irabazi iturri konstante egoki bat edukiko genuke, non 10.000€-ko irabazia estimatzen dugu hilabetero, 1.000 erabiltzaie premium inguru edukitzerakoan.



Azkenik, lehen ere hitz egin dugu ideiak erregistratzea aukera bat dela. Hori guztia guk egingo dugu, baina prezioak altuak direnez (500€-1500€), eta erraza ez denez, ideia bat erregistratzen dugun bakoitzean komisio txiki bat hartuko dugu: oinarrizko prezioaren %15-a, hau da, 75€-225€ inguru.

Gure ustez diru iturri hauek proiektu beraren kostuei aurre egingo die, hainbat diru sarrera ditugulako, eta proiektu honi nahiko etekin aurreikusten diogu.